

HARTZ TXIKI

Testua: ELSE HOLMELUND MINARIK

Irudiak: MAURICE SENDAK

Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

Azal gogorrean koadernatua. 15 x 23 cm. 64 or. 12 €.

ALA NOTABLE CHILDREN'S BOOK

Hartz Txiki (euskaraz)

ISBN 978-84-7681-827-5. Kalandraka-Pamiela.

Osito (gaztelaniaz)

ISBN 978-84-8464-865-9. Libros para soñar.

Osiño (galegoz)

ISBN 978-84-8464-866-6. Tras os montes.

El petit Ós (katalanez)

ISBN 978-84-8464-867-3. Llibres per a somniar.

Urso Pequeno (portugesez)

ISBN 978-989-749-022-4. Livros para sonhar.

Hotza egiten du. Elur asko dago. Begiratu elurra nola erortzen den.

Hartz Txikik esan zuen:

-Hartz Ama, hotzak nago. Begira zenbat elur dagoen.

Zerbait jantzi nahi dut...


“Hartz Txiki” sei liburuz osatutako Sail bateko lehen titulua da.

Hartz familia bat da liburu guztietako protagonista, eta liburu hauek oso ezagunak dira mundu osoan: milioika ale saldu ez ezik, telebistarako moldatuak ere izan ziren, 1995ean.

Obra hau 1957koa da, eta hartz maitagarri horien eguneroko bizitzari buruzko lau ipuin laburrez osatuta dago. Hartz Amak, Hartz Txiki zaindu nahian, hotzetik babesten du, urtebetetze-tarta bat oparitzen dio, adarra jotzen dio ilargira joan nahi duela esaten dionean eta oso ipuin berezia kontatzen dio lotara joan baino lehen.

Kontakizun laburrak dira eta elkarrizketa asko dituzte, irakurtzeko zein ozenki kontatzeko ezin aproposagoak, erraz errepika daitezkeen esaera askoren bidez haurrek parte hartzeko gonbitea egiten dutelako.

Maurice Sendak-ek Saileko lehen bost tituluak ilustratu zituen, antigoaleko grabatuak imitatzen dituen estilo batez, lau edo bost tinta erabiliz. Marratzu zituen pertsonaia adierazkorrei, etxe-irudikapenei eta irudimenezko gertaerei samurtasuna eta hurbiltasuna darie.



- **Galak:** kontakizun laburrak.
- **Gomendatutako adina:** 4 urtetik aurrera.
- **Alderdi azplmarragarriak:** “Piztiak bizi diren lekuan”, “Gaueko sukaldean” eta “Kanpoaldeko munduan” trilogiaren egile berarena. “Hartz Txiki” Saileko lehen titulua. Etxea, eguneroko bizitza, ama-semea harremana.

Else Holmelund Minarik

(Danimarka, 1920 – Estatu Batuak, 2012)

Lau urte zituela Estatu Batuetara joan zen bere familiarekin. Psikologia eta Artea ikasi zituen New Yorkeko Unibertsitatean. Kazetari eta irakasle gisa lan egin zuen. “Hartz Txiki” Saila ez ezik, Haur eta Gazte Literaturako beste liburu batzuk ere argitaratu ditu.

Maurice Sendak

(Brooklyn, Nueva York, 1928 - Connecticut, 2012)

Haurrentzako 90 liburu baino gehiago argitaratu zituen 1951z geroztik, eta ibilbide oparo horregatik 1970ean Andersen Saria eta 1983an Laura Ingalls Wilder Saria jaso zituen. Estatu Batuetako gobernuak Arteen Domina Nazionala eman zion 1996an, eta 2003an Astrid Lindgren Nazioarteko Saria eman zioten Christine Nöstlinger egile austriarrarekin batera. Margolaritza eta marrazkigintza ikasi zituen Art Students League of New York delakoan. All America Comics delakoan lortu zuen bere lehen lana lustratzaile gisa, eta 1951n Harper and Brothers argitaletxearentzat lan egiten hasi zen ilustratzaile gisa. Literaturaren alorrean benetako iraultza eragin zuen bere liburuetako forma, eduki eta ideiangantik. Berezitutako kritikaren aburuz “Estatu Batuetako gizon eraginkorrenetako bat izan zen, milioika umeren fantasiak irudikatzea erantzukizun ikaragarria dela kontua hartuta”.



www.kalandraka.com

comunicacion@kalandraka.com

www.



Pamiela.com
etxea

soltxate@pamiela.com